



## **Hondakinen kudeaketa eta komun publikoak COVID19ak eragindako egoerara egokitzeko neurri berriak**

- **Bolumen handiko traste zaharren bilketa zerbitzua bertan behera geratzen da eta Garbigunea erabiltzaile partikularrentzat itxita egongo da**
- **Herriko komun publiko guztiak itxi dira**

ANDOAIN 2020/03/25. Andoaingo Udalak azken egunetan neurri sorta zabala hartu du COVID19ak sortutako egoerari aurre egiteko, eta gaur goizean hondakinaren kudeaketari buruzko erabaki berriak hartu dira.

Bolumen handiko elementu edo traste zaharren bilketa zerbitzua bertan behera geratzen da eta Garbigunea erabiltzaile partikularrentzat itxita egongo da. Soilik, udal zerbitzuek eta gremioek erabili ahal izango dute Garbigunea.

Horregatik, bestelako oharrik eman bitartean, andoaindarreei gisa honetako hondakinak ez ateratzea eskatzen zaie.

Herritarren batek, Garbigunera emateko presazko zerbeit edukiko balu, Andoaingo Udaleko ingurumen sailakin harremanetan jarri dadila eskatzen da, ATARIA zerbitzura deituz.

Bestetik, COVID19an positiboa eman dutenen edo berrogeialdian dauden pertsonen hondakinak kudeatzeko protokoloa ikusgarri duzue [www.andoain.eus](http://www.andoain.eus) web orrian.

Amaitzeko, ohar honen bidez jakinarazi nahi da Andoaingo komun publiko guztiak itxita egongo direla alarma egoera amaitu bitartean. Gure herritarren osasuna bermatzeko.

Guztion esfortzu eta lanarekin lortuko dugu.



## **Nuevas medidas para adecuar la gestión de residuos y los aseos públicos a la situación provocada por la COVID19**

- **Se suspende el servicio de recogida de elementos y trastos de gran volumen y el Garbigune permanecerá cerrado a los usuarios particulares**
- **Se han cerrado todos los aseos públicos del municipio**

ANDOAIN 25/03/2020 El Ayuntamiento de Andoain ha adoptado en los últimos días un amplio paquete de medidas para hacer frente a la situación generada por la COVID19, y esta mañana se han tomado nuevas decisiones sobre la gestión de residuos.

El servicio de recogida de elementos y trastos de gran volumen queda suspendido y el Garbigune permanecerá cerrado para las personas usuarias particulares. Sólo los servicios municipales y gremios podrán utilizar el Garbigune.

Por ello, se pide a los andoaindarras que no saquen este tipo de residuos hasta que no se den otras indicaciones.

En el caso de que algún ciudadano tuviera algo urgente que depositar en el Garbigune, se solicita que se ponga en contacto con el departamento de medio ambiente del Ayuntamiento de Andoain, llamando al servicio ATARIA.

Por otro lado, en la página web [www.andoain.eus](http://www.andoain.eus) podéis ver el protocolo de gestión de residuos de personas en cuarentena y personas positivas en COVID19.

Por último, mediante esta nota se informa que todos los aseos públicos de Andoain permanecerán cerrados hasta que finalice el estado de alarma, para garantizar la salud de nuestros ciudadanos.

Lo vamos a conseguir con el esfuerzo y el trabajo de todos.

**ANDOAIN, 25 de marzo 2020**